


Howard - Steiner - Müller - Fukuoka



("Baratze arboladuna, zazpi mailako elkartasun onuragarria")

Nekazaritza biologikoaren ehun urteko aitzindariak

E L K A R R I Z K E T A

■ Yvan Besson, *Histoire de l'Agriculture Biologique* liburuaaren egilea

Ekologikoa, organikoa, naturala... iraunkorra

Ongarri nahiz bestelako gehigarri kimikorik gabeko laborantza ez da azken hamarkadotako asmakizuna, ez hippyen garaian edo 1968ko maiatz aldean sortua. Ehun urtez goiti dabilta munduko nekazari argienak biologiko, ekologiko, organiko, natural edo iraunkor kontzeptuekin lanean. Lur langitza hau landarea baino haren oinarriko lurzorua artatu eta elikatzen saiatzea denez, azken urteotan aurrerapauso handitzat jotzen dute askok BRF Bois Raméal Fragmenté teknika: zuhaitzen adaxka birrinduak nahastea soroetako lurrazalari basoko lurra birsortzeko. Konpost klasikotik askoz haratago. BRFaren hariari tiraka heldu ginen Yvan Besson-engana, aurten Excideuil herrian (Perigord, Frantzia) gaiaz hitzaldia emana zuelako.

Geografia ikasita, Ingurumen Zientzietan doktore, ingenieritza ekologikoa, lurraldearen plangintza ekologikoa eta filosofia ekologikoa lantzen ditu, besteren artean. 2007an defenditu zuen doktoretzako tesia: *Histoire de l'agriculture biologique : une introduction aux fondateurs, Sir Albert Howard, Rudolf Steiner, le couple Müller et Hans Peter Rusch, Masanobu Fukuoka*. Laster behar du kalean liburu egina Sang de la Terre argitaletxearekin. Bitartean, gogo duenak EcoloTech webgunean dauka libreki eskuragai tesia. Bere curriculumare ere bai, non plazaratutako artikuluen eta eskainitako hitzaldien ondotik xaloki aitortzen dituen gaztetatik egin dituen lanak, hasita mutikotan aita zurginari laguntzea.

Yvan Besson 38 urteko gizon gaztea da. Bera eta Marie Claire emaztea hiru haur txikiren guraso dira. Perigeux hiritik ordu erdira dagoen Vilars herri txikira jo behar duzu haien bila eta gero bidexka batean barrena basoaren erdian dagoen etxaldea topatu. Emaztea irakasle ari zen bitartean, senarrak doktoretzako tesia landu du eta lur jota zegoen baserri zaharra bere eskuekin osorik berreraiki, zurak, hargintza, iturgintza, argindarra... kalefakzioa ez beste guztia berak egina da. Etxearen ondoan baratze zabala. Dena ekologikoa. Haien etxean jan-edan eta lotara gonbidatu gaituzte, zinez eskertzen diegun eskuzabaltasunez.

[www.argia.com gunean, Larrun atalean, eskaintzen da elkarrizketa osorik. Hautatu behar eta, papereratu gabe laga ditugu filosofiari eta erlijioari lotutako atal gehienak]



Yvan Besson elkarrizketako une batean, osorik bere eskuz zaharberritu duen baserrian.

Zure tesian hasieratik nabarmen utzi nahi duzu hau: alde batetik ez zarela biologikoan halako baldintzak betez elikadurak sortzeaz soilik ari baizik eta mugimendu sozial eta, ausartuko nintzateke, politiko batez; eta bestetik, guzti hau herritarrok pentsatzen duguna baino askoz zaharragoa dela. Iruditzen zait gure arteko gehienentzako txokantea gertatu-ko dela jakitea nekazaritza biologikoaz XX. mende hasierarako ari zirela hizketan batzuek.

Niretzako ere aurkikuntza bat da. Frantzian bertan 1980tik aipatzen da nekazaritza biologikoa, Estatuak ezagutza aitortu dionetik. 1990eko hamarkadan “AB” logoa sortu eta dirulaguntza publikoak zabaldu zirenetik,

askoz ezagunagoa da. Aurretik kasik ezezaguna zen, nekazarien artean barregarritzat aipatua ere bai.

Aldiz, Frantziako lehen mugimenduak, bai Association Française d'Agriculture Biologique (AFB), eta Association Française pour le Retour à une Alimentation Normale (AFRAN), hau biodinamikaren bidetik abiatu zena, biak ere 1950eko hamarkadakoak dira. Gero 1963an nekazarien artean indar hartu zuen Lemaire-Boucher mugimenduak *[Raoul Lemaire eta Jean Boucher-ek eman diote izena metodoari; une batez elkarte komertziala osatu zuten baina gero bide banatatik segitu zuten]*, eta 1964an eszisio batek ekarri zuen Nature et Progrès-en sorrera.

Zure lanean ikusten da nola “lurrera itzultzeko” mugimendua ere, Frantzia 1968ko maiatzaren ondoren hain famatua egin zen “Retour à la Terre” eta geroztik gure artean ere bere oihartzuna izan duena... hori bera ere aspaldikoa dela. Alemanian, gutxienez XIX. mende bukaerakoa.

Hala da. Ikuspegi frantses batetik, mugimenduok nabarmenak izan ziren Lehen Mundu Gerra garaietan, eta baita lehenago ere, Fourier bat aipatu dezakegu, gizarte industrialak edo kapitalismoa edo biak kritikatzeko dituzten mugimendu utopikoak, gauzak bestela egitea aldarrikatuz. Mugimendu kooperatiboa eta mutualismoa bezalakoak nekazaritza biologikoaren antzinako sustraiak dira, gutxienez honen osagai sozialetan.

Alemanian hori mamitu zen 1910-1920 urteetan, nekazarien eta kontsumitzaileen elkarteekin. Hor aipatu behar da Berlin ondoko Eden kolonia bejetarianoa.

Eden horrena harrigarria da, iadanik Weimarreko errepublikan bazen, nazismoarekin iraun zuen, gerra gero, Alemaniako Errepublikak Demokratikoa, denak gainditu eta gaur bizirik dirau.

Interneten dauka bere webgunea, bai, eta hor dago bizirik Eden “kolonia bejetariano arborikola” [*Vegetarische Obstbau-Kolonie “Eden”, 1893an sortua, mende batean Alemaniak jasan dituen ekaitz guztiak gainditu eta oraindik martxan dagoena, Berlin inguruetan*], Ewald Köneman eta Richard Bloeck-en teoriak gainez gain eraikia. Teosofian oinarritzen ziren, gero nahi baduzu ikusiko dugu nola haren eszizio batetik sortu zuen Antroposofia Rudolf Steinerrek, nekazaritza biodinamikoaren aitak. XX. mende hasieran, beraz, Alemaniako mugimendu horrek alternatiba osoa zeukan: produkzioa, ekoizpenen banaketa, eskola ere bazeukan, gaur produktuen labelizazioa edo trazabilitatea deituko genukeena-

“Nekazari alternatiboa aipatzean ez naiz ari bakarrik biologikoan ari direnez baizik eta produktibismoa bai tradizioetik edo bai biologikotik edo bestetatik kritikatzeko zuten, ikusteko ea zein ziren haien erantzunak mundu mailako krisi ekonomikoari”

ren lehen urratsak egin zituzten. Eta, pentsa zein harrigarria den, 1920.eko urteetan Alemanian baziren “*Reformhaus*” deituak, erreformaren dendak, “*Lebensreform*” edo Bizitzaren Erreformaren aldeko mugimenduak sortzen zituen produktuak saltzeko.

Mugimendu hark naturismoa aldarrikatzen zuen, higienismoa, termalismoa, eta abar. Erreformaren Denda horiek oraindik arruntak dira Alemanian, eta gure Biocoop edo naturdenden arbasoak dira.

Bestalde, Nekazaritza Biologikoa aipatzean zu “nekazaritza alternatiboa” dei genezakeen horretaz ari zara, ez “Bio” labela duten produktuak ekoizten dituzten laborariez soilik. Alegia, hor sartzen dituzula kontsumitzaile eta nekazarien arteko elkarteetan ari direnak esate baterako, edo ongarri eta botika kimikoak ahalik eta gehien mugatzen saiatzen direnak, baserri txikiak zutik atxikitzen ahalegintzen direnak... Euskal Herrian ELB eta EHNEko kideek “laborantza iraunkorra” deitzen dutena.

“Biologiko” hitzaren ordezeko bat aurkitzekotan, “nekazaritza naturala” ere deitu dezakegu, naturatik ahalik eta hurbilenekoa, natura erresetatzen duena. Minimotako definizio teknikoak gaur egun zera da: ez erabiltzea produktu kimiko sintetikorik. Baina bada ahaleginik gutxieneko hori irizpide sozialez osatzeko, hori labelen arabera joaten da. Howardek hasieran nekazaritza organikoa eta naturala izendatzen zuen, Eden mugimendukoek ere naturala. Gero hasi zen biologikoa aipatzen, baita ere biologiko dinamikoa, Rudolf Steinerrek biodinamikoa deitu zuena, Müllerrek organo-biologikoa deitzen zion. Gaur Europar Batasunak hiru izen ezagutzen dizkio: biologikoa, organikoa eta ekologikoa. Nazioartean IFOAM erakundeak (International Federation of Organic Agriculture Movements) “organic” darabil.

Kontua da alde batetik naturarekiko hurbilagoko laborantza bilatzen dela eta bestetik N-P-K (Nitrogenoa-Fosforoa-Potasioa) motako fertilizazio kimikoa ez dela irtenbide ona. Ez dela agronomia ona. Aspaldi esplikatua. N-P-K

eskemarekin landareak elikatzen dira, ez lurra, eta nekazariak azalduko dizute landare alferrak hazten direla horrela, beren kabuz elikatzeak gai ez direnak, ez dira lantzen lurrarentzako bezala landareen sustraientzako hain garrantzizkoak diren onddo, mikoriza, bakterio eta bestelakoak.

Azkenean, lurrik gabeko eskema batean gaude. Posible da leku denetan lurrik gabe funtzionatzea, hidroponikoan? Bai, erantzungo zait, baina garestiegi aterako litzateke. Nekazaritza kimikoarentzako lurra euskarria da, Justus Liebig-ek [Darmstadt, Alemania, 1803-1873, garaiko kimikari famatuenetako bat, beste berrikuntza anitzen artean berari aitortzen zaio nekazaritzarako ongarri kimikoak asmatzea, nitrogenoari buruzko azterketetan oinarrituta] aspaldi definitu zuen “gai mineralen godeleku”, eta gainerakoak ez zion axola. Nekazaritza kimikoaren emaitzak ikusgarriak izan dira, baina ez da negozio ona izan. Mundua elikatzeak ez da aski eta hein handi batean oker planteatuta dago.



IVU-WELT-VEGETARIER-KONGRESS

Ikasleak eta errieta “Eden” kooperatiba famatuan XX. mende hasieran. Gaur oraindik martxan dago, Berlin inguruetan.

Aurkeztu iezazkiguzu nekazaritza biologikoaren lau fundatzaile nagusiak, Albert Howard, Rudolf Steiner, Hans Müller eta Masanobu Fukuoka. Zure idatzian garbi geratzen da zure iritzirako nekazaritza ekologikoaren etorkizunari gehien interesatzen zaizkionak Howard eta Müller direla.

Hasteko, fundatzaileak eta pioneroak aipatzen ditugunez, zilegi da galdetzea: fundatzaileak norentzako eta zergatik? Historia bat idaztean dudarik gabe badira hautu ideologikoak. Hasteko, ni ikuspegi frantses batetik abiatzen naiz. “Grosso modo”, nekazaritza europarraren zako balio du.

Bigarren Mundu Gerraren ondorena arte, frantsesendako Steiner eta Howard dira fundatzaileak. Muller eta Rusch ordurako hasiak ziren laborantza biologikoan, baina Frantzian 1960-1970etan ezagutarazi ziren, ez lehenago. Beraz, 1980 arte horiek dira hiru korrante nagusiak.

Masanobu Fukuokaren lehen itzulpena frantsesera 1983koa da. Ordurako hemengo batzuek irakurriak zituzten Fukuokaren ingelesezko bertsioak; nik 2001ean ekin nion tesiari eta orduan ari zen haren izena zabaltzen. Gero eta gehiago sartzen da fundatzaileen artean, gaur indarrean datozen proposamenak aurreratu zituelako: zuzenean ereitea, ez goldatzea, estalki bejetal azpian zuzenean ereitea horren aldagaia da, eta gero agroforesteria.

Munduan asko ari da zabaltzen gaur goldatu gabeko laborantza, soro erraldoietan ere ari dira, ez biologikoan, glisofatoa (Monsantoren “Rond-Up” marka da famatuena) erabiliz. Pentsa, goldatzea izan da betidanik nekazaritzaren ekintza enblematikoa, ez bada oinarritzkoa. Goldea zen laborantzaren ikurra.

Egia da, laborantzan aritutako edonork ikusten bazaitu baratzean aitzurtu gabe ereiten, ezin du ulertu...

ULRICH HASLER




Berlingo Karl-Marx etorbideko “Reformhaus” komertzioa. Gaur egun munduan hain ugariak diren naturdenden aitzindaria izan zen.

Txoke handia izan da. Pasadizo bat kontatzeko, Laborari Gazteen biltzarrera lehenbiziko joan nintzenean bazen han hizlari bat konparatzen ari zena kristau bihurtzea, Jesusen eragina gure bihotzetan, goldearekin. Besoa jaso nuen esateko kontuz ibili behar dela, goldea ez dela hain fantastikoa, gero eta azterketa ugariagok erakusten duela goldea txarragoa dela lurrarentzako belarrak hiltzeko botikak baino, adibidez txitxareentzako. Alde horretatik, Howard bera ez zen aski kritiko izan nire irudiko.

Fundatzaileetan, lauetatik hiru baserritarak dira jatorriz. Hiruek betetzen dute zuk hain inportantetzat aipatzen duzuna: teoria eta praktika loturik eramatea.

Howard, Muller eta Fukuoka, hirurak dira laborari seme eta azken biok gainera berak ere laborari. Steiner trenbidetako langile baten familiakoa zen. Teoria eta praktika, ekonomia eta soziala, lotzeari dagokionez, Howard nabarmena da denen artean. Agronomiari dagokionez, intuiziorik sakonena izan zituen dudarik gabe Fukuoka.

“XIX ean beste batzuek ere proposatu zuten baserria eta laborategia uztartzea, praktika eta teoria, baina Howardek egin egingo du. Are gehiago, nahi du berrikuntzak herrietan barrena hedatu daitezeneta horretarako bere ikasle onenak ez ditu laborategian atxikiko, beren herrietara itzuliko dira teknikak zabaltzera”



Bestelako bizimodua aldarrikatzen zuten mugimenduaren aldizkarietako bat, XX. mende hasierakoa.

Datei begiratuta, Albert Howard da nekazaritza biologiko europarraren sortzailea. Fundatzailea, hau da, kritikoa da agrokimikoekiko, baserritarren tradizioarekin lotura egiten duena. Laborea eta abelazkuntza lotzen dituen nekazaritza defendatzen du. Rudolf Steiner ezagunagoa da, askoz gehiago mediatizatu dute biodinamikan ari direnek, baina Howard hamar urtez lehenagokoa da, 1910ekoa.

Luze eta zabal deskribatu dituzu Howarden lanak eta ideiak zure tesian. Saia zaitez horiek laburtzen gure irakurleentzako.

Albert Howard [1873-1947] Ingalaterrako Shropshire eskualdeko baserritar baten semea da. Ikasketa oso distiratsuak egin zituen zientzietan, kimika, biologia eta nekazaritzan. Cambridgeko unibertsitatetik pasatu zen. Botaniko



Albert Howard ezkerrean. Goian, Indiako Indore etxalde famatuko irudi bat. Eskuinean, Ingalaterran sagarrondoaren sustraiak ikertzeko prantatu zuen laborategia.



WWW.KENNUNCORP.COM

postua eman zioten Inperio Britainiarrean eta estreina Antilletara bidali, Barbadosera, eta gero Indiara, urte asko egin zuen Indian.

Bere ideia zen ikerlari agronomo batek, baldin eta nekazaritzari lagundu nahi badio, gai izan behar duela hobekuntza zehatzak demostratzeko. Agronomiak teoria eta praktika lotu behar ditu. Nekazaritzako esperimendu zentro batera joanik, hura bihurtu nahi du etxalde eredu bat. XIX.ean beste batzuek ere proposatu zuten baserria eta laborategia uztartzea, praktika eta teoria, baina Howardek egin egingo du. Are gehiago, nahi du berrikuntzak herrietan barrena hedatu daitezen, eta horretarako berekin ikasten dutenetatik onenak ez ditu laborategian atxikiko, baizik eta beren herrietara itzularaziko ditu berriro, teknika berriak zabaldu ditzaten, ahalegin erreformatzailean.

Inperio Britainiarraren testuinguruan, Howarden beste helburua da herritarren bizi baldintzak hobetzea. Mike Davisek liburu batean esplikatu du zeinen ikaragarria zen Indiako herritarren bizimodua inperioaren mende: plantazio kolonialetako nekazari-obreroen janari arrazioa txikiagoa zen naziek Buchenwaldeko kontzentrazio zelaian presoek ematen zieten baino. Askok hiltzen ziren gosez, inperioak aberastasun oro Britainia Handira eramanez nahi zuelako. Howard horren kontra borrokatuko da.

Adibidez, garia selekzionatzen hasita, saiatuko da hautatzen barietateak lekuari ondoen dagozkionak baina baita ere baserriarren bitartekoentzako egokienak, eta aldi berean ondo egokituak gero haiek ehotu behar zituzten makina ingelesetara. Horretan ereduakoa izan zen, eta Vanda Shiva bezalako pertsonaltate batek publikoki Howarden lana defendatu eta omendu izana adierazgarria da.

Teknikari dagokionez, Howard asko zentratu zen konpostean, simaurraren hobekuntzan eta abar. Lurraren fertilizazio osorik organikoa nahi zuen, horrela eskuratzeko janari sanoago, aberats eta orekatuak. Haren lanaren zati handi bat Indore izeneko konpostaketa sisteman zentratu zen. Indore zen Indian Howardek etxalde esperimentalak zeukan eskualdea. 1930eko hamarkadan asko zabaldu zen munduan Howarden sistema, berak harreman ugari zituen postaz inperioko beste askorekin.

Parasitismoan ere egin zuen lana, landareen bizkarroiak nola gutxitu, landarea sano atxikitzean oinarrituz beti ere. Gero, gerra denboran, Howardek lan handia egin zuen Ingalaterran gobernuak nekazaritza berriro indartu zezan. Izan ere, Inperio baten jabe izanik, laborantza ingelesa abandonatua izan zen jaki gehienak urrutitik ekartzeko. Ez zioten kaso handirik egin.

Hala ere oihartzun handia izan zuen Howardek mugimendu eta talde askoren artean. Giro bat ere bazegoen horretarako. Zehazkiago eza-gutzeko irakurri behar da Philip Conford-en *The Origins of the Organic Movement* liburua, garbi uzten du erromantizismoaren garrantzia guzti honetan. Eta erromantizismoaz leitu behar da Michaël Löwy eta Robert Sayre-k idatzitako *La révolte et mélancolie. Le romantisme a contre-courant de la modernité*, ulertzeko galaxia erromantiko hori eta bere tendentzia anitzak: kontserbadoreak, utopikoak, sozialistak, kristauak, ideia ezberdinak errepublikaz, teknikaz... Horietan sarritan aurkituko dugu nekazaritzaren eta artisautzaren balorizazioa, askotan Erdi Aroaren balorizatzea ere bai, non halako autogestio bat baitzen estatu zentralaren sorreraren aurretik.

Erromantizismoaren kontu honek Rudolf Steinerrengana garamatza. Steinerrez eta erromantizismoaz luze idatzi duzu. Agian batzuk haserretuko zaizkizu. Zuk diozunez, nekazaritza biologikoan oihartzun handia lortu duen arren, Steiner urte oso laburrez aritua da gai honetan, eta, aldiz, gizon erreferentziala da Antroposofian. Steiner lotzen duzu esoterismoarekin, okultismoarekin...

Rudolf Steiner [Austria, 1861-1925] funtsezkoa da Mendebaldeko kulturaren historian alde askotatik. Alde batetik, teoriko bat zen, unibertsitatean ikasketak eginga zen eta diploma zientifikoaren jabe. Bestetik, asko aztertu zuen Johann Wolfgang Goetheren lana, haren lan "zientifikoak", kaxotx artean ipinita, koloreei buruzkoak, landareei buruzkoak, eta abar. Filosofian doktore egin zen, batik bat filosofia modernoan interesaturik.

Gero, milaka orri idatzi ditu Antroposofiaz, zeina baita aita Verlinde-ren hitzetan [Jacques Verlinde, *apeztu ondoren Joseph-Marie Verlinde deitua, monjea, zisterzienseen ildotik Saint Joseph-eko anaidia fundatu zuena, Frantziako katoliko askorentzako esoterismoan eta sata-*

nismoan aditu nagusietakoa; yoga eta tai-chi bezalako bideak anti-kristautasunaren eredu-tzat saltzen ditu] Antroposofia da XX. mendean arrakastarik handiena bildu duen mugimendu esoterikoa. Munduan 80.000 bat bazkide ditu, badituzte eskolak, ezinduentzako erakundeak, bankugintzan ere ari dira, Triodos edo Frantziako NEF haienak dira, drogerian Weleda marka famatua bezala, dantzan eta teatroan badira taldeak, ikerketa unibertsitarioko institutuak... eta nekazaritza biodinamikoa. Galaxia bat da antroposofia.

Rudolf Steiner eta nekazaritza antroposofikoa ulertzeko filosofiaren eta ideien historian atzera egin beharra dago. Horretaz idatzia daukat artikulua bat *Agrobiologie et Philosophie* 2009an plazaratua. Alegia, nekazaritza biologiko edo naturalaren galderak oinarritzen direla azken finean gizakiaren eta naturaren arteko



Howardek Indoren antolatutako etxaldealaborategiko irudi bat. Gurdien gurpilpean birrintzen zituzten landare zuztarak konpostetarako.



Konposta egiteko osagaiak, ikasketetan erakusteko prestatuta: simaurra, errautsak, lur pixaduna...

“Antroposofia da XX. mendean arrakastarik handiena lortu duen mugimendu esoterikoa. Badituzte eskolak, ezinduentzako erakundeak, bankugintzan ere ari dira (...) eta nekazaritza biodinamikoa. Galaxia bat da antroposofia”


harremanen galderaren gainean. Labur izateko, esan behar da Erdi Aroaren bukaera arte kultura gehienek unibertsoaren ikuspegi kosmikoa izan dutela, non gizakia haren parte baitzen; gizakia zen mikrokosmos bat makromosmosaren osagai.

Gero pixkanaka gizakiak hartzen du kontzientzia naturarekiko daukan berezitasunaz, eta Aro Modernoan nagusitzen da gizakiaren ideia bat naturagandik bereizia. Greziarren artean, esaterako, gizakiaren eta naturaren arteko harreman intimoa zegoen; Aro Modernoan bereizita ikusten dira, eta ildo horretan bereziki azpimarratu nahiko da hori zientzia modernoaren sorrerarekin, naturarenganako hurbilketa matematizatu batekin. Emozioa edo sentimendua den oro, gizakia naturaren zati izateari lotua den guztia, bazterreratuko da.

Beraz, modernitateak ekarritako naturaren ikuspegi dual honek eragingo du intelektual, poeta eta abarren matxinada. Horra mugimendu erromantikokoaren sorrera. Naturarekiko loturak berregin nahi ditu, modernitatearen aitzina-menduei uko egin gabe, humanismoa, gizakiaren natura ezagutu eta aldatzeko ahalmenari, pusantza teknologikoari, uko egin gabe.

Nekazaritza biologikoaren atzean dauden ideia filosofikoen atal honekin, nire irudiko, bigarren liburu bat daukazu. Hain zuzen horretaz da lehen aipatu duzun artikulua, *Une histoire de exigences: philosophie et agrobiologie*, nireak bezalako haginenezako askoz irakurgai gogorragoa dena...

Bai, idatzi horrekin tesitik aurrera jo dut, nire ikerketa proiektuaren mamian barnatuz. Niretzako, teknikaren alorrean, nekazaritzarena teknologiatik arazoaren osagai bat da. Laborantza teknika da, eta nire ikerketaren helburua da ingeniariak ekologikoa, hau da, ea nola izango den posible teknologien aitzina-mendua naturarekiko begirunez jokatzu. Honetan, nahiko nuke pittin bat aitzinatu. Teknologiak egiten badakigu, baina ez dakiguna da teknologia garbiak egiten. Andeatzen dugu, kutsatzen, alferrik galtzen.



Rudolf Steiner, nekazaritza biodinamikokoaren eta Antroposofiaren sortzailea.



Suitzako Dornach-en eraiki zuen mugimendu antroposofikoak Goethaneum hau, 1923ko urtats gauez norbaitek nahitara sutu zuena. Berria eraiki zuten gero, gaur oraindik zutik dirauena.


Kritika erromantikora itzulirik, lehenago greziarrak aipatu dizkizut eta filosofia moderno, baina aipatu ez duguna da tartean zibilizazio kristaua egon dela. Zibilizazio judeo-kristauak ekarri du humanismoa, subjektua, baina baita ere naturaren desmitologizatzea. Juduek borroka egin zuten jainko bakarraren alde eta beste jainkoen kontra, baina baita ere jainkoa eta natura nahastearen kontra, monoteistak zirelako. Bereizketa hau funtsezkoa izan da modernitatearentzako. Arazoa da modernitateak bereizketa bai egin zuela, baina lotura egin gabe. Biblia ez da naturaren kontrakoa, edo natura mugarik gabe ustiatzearen aldekoa. Aitzitik, Biblian irudi asko daude alderantzizkoa proposatzen dutenak. Hor dago Edeneko baratze famatukoa, han bazen harmonia bat gizakiaren eta naturaren artean, gehi, azpimarratzen dut, baratzea lantzeko Jainkoak gizakiari egiten dion gonbidapena: zaindu, kontenplatu, eta lantzekoa.

Naturaren eta gizakiaren arteko bereizketa erradikalaren kontrako borrokan erromantizismoak ez du judeo-kristautasunera itzuli nahi izan, jainko monoteistara, gizakiaren eta Jainkoaren arteko harreman zuzenera. Erromantizismoak antzinatera jo du, edo Ekialdeko mundura, non nahasmendu bat dagoen Jainkoaren eta naturaren artean, panteismora. Hori nabarmena da Alemanian Lebensreform bizitzaren

erreformaren aldeko mugimenduan, eta abar. Naturaren mistikara jotzen dute.

Nekazaritza biologikoaren fundatzaileak hasiko dira ama natura goratzen, Natura jainkosa, Gaia. Humusaren magia bezalako bat ikusten dute, edo zimaurrea. Misterioa. Formakuntzaz ginekologoa zen Rusch-ek aipatuko du nekazaritza biologikoaren “miraria”, bere liburu nagusia den *Lurraren fertilitatean* aipatuko du “nekazaritzaren txinparta, gerta daitekeena ala ez”. Iduri luke gainditzen gaituen zerbaitez ari garela, baina benetan nekazaritzaz ari bagara ezagutzaz eta teknikaz ari gara. Ekonomia eta beste osagaiak ere hor daude, baina agronomiaren ikuspegitik zergatik bilatu magiarik? Modernitatea eta aitzinamendua nire ustez hurbilketa materialistago batetik doaz.

Baina Steiner, nekazariseme ez den bakarra, justu alderantzizko bidetik abiatuko da, bide intelektual, espiritual eta esoteriko batetik, nekazaritza on bat egiteko. Steinerrek etxaldeaz Howarden ikuspegi bertsua dauka: polikultura, laborantza-abelazkuntza, konposta... Baina gero baratzean erabiltzeko gehigarriak, edo abereak hobeto hazteko nahasketak, eta abar planteatzerakoan, edo ereitean bezala landatzean ilargiaz gain halako eta bestelako izarren egoera kontutan hartzen dituen egutegiaz, eta abar... horien oinarriak esoterismoan datzate.



Hans eta Maria Müller senar-emazteak, Suitzako nekazaritzan eta politikan eragin handia izan zutenak.

Beraz, zure ustez, biodinamikan ereiteko, landatzeko eta abar erabiltzen duten egutegia esoterismoa da...

Egutegiaren kasuan, hilargiaren eraginaz bada liburu bat 2008koa, *Aux origines des plantes* (Landareen jatorria), Francis Hallé zientzialaria zuzendari duena eta horretan Ernst Zürcher-ek *Les plants et la lune: traditions et phénomènes* idatzi du, eta azaltzen ditu hilargiaren eraginaz egindako esperientzien emaitzak. Baina biodinamikan ari direnek hilargiaz gain astroak hartzen dituzte kontutan, batzuk, ez bestetzuk. Nik hasi nintzenean pentsatzen nuen “bon, hilargia ikusten da, baina aski urrun da, izarrak askoz hurrunago dira”... Baina Rudolf Steinerrekin arazoa ez dago horretan. Kontua da berak astroak aipatzean ez dela astroez ari, baizik eta astro horiek gobernatzen dituzten izakiez. Hor okultismoan sartu gara erdiz-erdi, Steiner beraren *Ezikutukoaren zientzia* (*La ciencia oculta* gaztelaniaz, *La Science de l'Occulte* frantsesez), irakurri besterik ez dago, honetaz argi eta garbi mintzo da.

Niretzako, behi baten adar hustua hartu, ez dakit zein animaliaaren simaurrez eta halako landarez bete, udazkeneko ekinozioan lurperatu eta udaberriko ekinozioan berriro atera eta lurrean zabaltzea... hori sorginkeria da. Errito suerte bat.

Zure iritzia Steinerrekiko nabarmen azaldu duzu. Nekazaritza biologikoaren fundatzaile-

tan aitzina eginaz, Maria eta Hans Müller oso bestelakoak dira.

Hans Müller (Suitza, 1891-1988) laborari-semea da eta bera ere laboraria. Eta gehien inarrostean duena da nekazarien bizi ezina, sozial eta politika mailan jasaten duten gainbehera iraultza industrialaz geroztik. 1920ko hamarkadan hasten da ekinean. Nekazarien osasun-aseguruz, babes sozialaz eta abarrez okupatuko da, baina aldi berean badauka lehengo laborari giroaren nostalgia, kaletarrekiko mesfidantza, ereite eta uzta garaiko auzolana konparatzen ditu laborari modernoaren isolamenduarekin eta honen makinaren zaratarekin. Badauka industrializazio aurreko garaien nostalgia.

Baina Müllerrek aurreratzen ikusi nahi ditu baserritarrak gizartean eta beren mundua ez dadila geratu kaletik eta industrietatik etenda. Hasteko alderdi politiko orijinal bat eraikiko du, Alderdi Nekazari-Obrero-Kaletarra edo bugesa *Bauern-Gewerbe-Bürgerpartei* (BGB). Alderdi transbersal honek behin batean lortu zuen gehiengoa Bernako kantonamenduan, baina ezin zuen aurrera egin, modernitatearen irizpide politikoetan atipikoa baitzen.

Horretaz sozialistekiko harremanetan ohar-tuko zen: sozialistek laborariak errefusatzat dauzkate, mekanizazioaren, etxaldearen handitzearen, hitz batez industrializazioaren aurrean, eten gabe nigar egitera kondenatutako katego-

ria sozial bat. Sozialistek laster ez dute ezer jakin nahiko Müllerren alderdiarekin, eta honek norbaiten beharrea azkenean naziekin ere kolaboratuko du une batean, nekazaritzari ekarriko dion kalte guztiarekin. Bigarren Mundu Gerraren ondoren Müllerrek politika utziko du eta burubelarri murgilduko da nekazaritzaren alderdi ekonomikoan, Galmiz AVG kooperatibaren sustatzen.

Hemen hasiko da elkarlanean Hans Peter Rusch-ekin (Alemania, 1906-1977). Honek, emakumeen flora ginekologikoaren degradazioaren eta elikaduraren arteko loturak eginak zituen. Rusch eta Müller elkarrekin nekazaritza biologikoaren oinarri teorikoak lantzen hasi ziren, iturri askotatik edanez, beren esperientzia propiotik batetik, baina garaian eskura zeukaten literaturatik ere bai, hala nola aintzindari alemanak Ewal Könnemann bezalakoak, Albert Howard dudarik gabe...

Lan honetan Hans Müller bere emazte Mariarekin ari zen. Honek emakume baserritarren eskola zeukan antolatua, neska gazteei etxaldea nola antolatu erakusteko, eta nekazaritza biologikoan ikasketak egin zituen. Liburu-tegi bat ere antolatu zuten, nekazariei ezagutarazteko pentsalari inportanteak, hala nola Karl Marx; Müller ez zen marxista, baina Marxen kritikaren balioa aitortzen zuen.

Suitzako parlamentuko diputatu izanik, bidaiak egin zituen, tartean Danimarkara, hemen ezagutu baitzuen Nikolai Grundtvig-ek abiarazitako herri eskolak. *[Nikolai Frederik Severin Grundtvig (1783.1872) jotzen da helduen eskolaratzearen aitzindaritzat. Herri xehearen eta batik bat nekazarien hezkuntzaz oso kezkatua zen Gudntvig apez eta politikari danimarkarra].*

Müllerrek egin zuena oso modernoa zen. Izan da idatzi duenik baserritarren autarkia bilatzen zuela, hain zela atzerakoia, baina oker dago. Bera saiatu zen alderdi politiko transbersal bat egiten gizarte osoak barneratu zezan

“Müllerrek egin zuena oso modernoa izan zen (...) dibertsifikatu egin nahi zituen bai baserrietako produkzioa eta bai mozkinak saltzeko sarea: zuzeneko salmenta, Migros supermerkatuak, posta bidez bidaltzea... beti nekazarien ikuspegitik”

nekazaritzaren arazoa. Howardek eta gero Fukuokak bezala Müllerrek ere nekazaritza herrien arimatzat baizeukan. Nekazaritzaren jakintza, lurrarekiko lotura... hori galtzen uzterik ez zegoen. Ni neu ados nago horiekin puntu horretan: atxiki behar da lurrarekiko lotura.



WWW.BIOGROUPE.CH

Müllerrek Galmizen sortutako kooperatibako langile bat iaz.


Zure liburuan batek harriturik ikusten du orain dela hirurogei urte Suitzako laborariak hango Migros supermerkatuetan bazituztela apal bereziak mozkin biologikoak saltzeko, posta bidezko salmenta ere egiten zutela...

Egia da, oso berezia da. Suitzako parlamentuan elkar aurkitu zuten Hans Müllerrek eta Migroseko zuzendari zen Gottlieb Duttweiler ek. Orduan Suitzako supermekatu kate nagusia zen Migros eta gaur ere hala izanen da. Elkar ulertu zuten eta Europako lehen bio sarea antolatu zuten. Müllerrek dibertsifikatu nahi zuen bai baserrietako produkzioa eta bai mozkinak saltzeko sarea: zuzeneko salmenta, Migros, posta bidez bidaltzea... Beti nekazarien ikuspegitik. Produktibismoarekin joera zegoen Europar laborariari esateko “zu okupa zaitez produzitzeaz, besteok egingo dugu gainerakoa” eta etekinak haien eskuetatik urrun gertatzen ziren.

Harrigarria egin zaigu beste hau ere: Müller supermerkatuekin negoziatzen ari zenean, komertziantee asko baloratzen zutela barazki eta fruitu biologikoek askoz iraupen handiagoa izatea ongarri kimikoz hazitakoek baino.

Horrela da. Kontserbatzeko produktu kimikorik eta hozkailurik artean ezagutzen ez zenez, nabarmen geratzen zen produktu bio batek askoz luzeago irauten duela bestelakoak baino.

FOTOARCHIV MOSCHBERG



Hans Peter Rusch doktorea, Müllerren ideietan eragin handia izan zuena.

“Fukuokaren esperimentatze bidea zen gehiegizkoa kentzea, hau eliminatu eta gero bestea: ‘Eta arbolok inausiko ez banitu?’ ‘Eta soro hau ureztatzeari uko egingo banio?’ (...) Fukuokak bereari ‘ez eraginezko laborantza’ deitzen dio. Prefosta, ez egitea baino askoz gehiago da, ez da alferkeria”

Bestalde, Müllerren kasuak erakusten du zein zaila zen nekazarien eta kaletar ezkertiarren arteko elkarlana. Ezker marxistaren, baita Marx beraren, ezinulertua laborarietarako.

Karl Marxek ekonomia liberalaz egiten duen kritika bere neurri osoan hartu beharra dago aintzat, baina Marxen abiapuntua Adam Smith, David Ricardo eta enparauena bera da: lanaren banaketa, industrializazioa, eskalako ekonomia, aurrerapen soziala makinak eta industriak dakartela, nekazariak lurretik aldegittea gizartean aurrera egiteko modutzat ikusten da, eta laborari munduaren ikuspegi aski karikatuzkoa. Baserritarrek ez dute inoiz politikarik egiten, zaku barruan dauden patatak legez dira, ez dira koordinatuko, ez dute elkar hartuko. Marxentzako baserritarrak aurrerapenaren hondakinak dira. Istilu asko etorri da hortik. Errusiako historian ikusi da, laboraria ez dute ikusi batere aurrerakoi. Marx industriazko ekoizpenean zentratzen da, etekinean, eta nekazaritzak ez du diru askorik irabaztaratzen. Howardek behin baino gehiagotan esango du, laborantzaren gainean eraikitako fortunarik handienak ezin zaizkie alderatu industriako fortunei.


Marx obreroei mintzo da. Gaztetan Hegelek markatu zuen, izpirituaren idealista batek. Errealismo enpirikotik urrun gaude. Ondorioz, sozialisten ondarea obreroek eta burgesiak markatuta dago, oso gutxi nekazariak; hauek gehiago lotzen ziren notableekin, katolikoekin, eta ezkerre borrokan zegoen eliza katolikoaren kontra. Müller sozialistekin ondo ez moldatzea ez da harrigarria, beraz.

Baina gaur ere berdintsu da, ezkerrekoak izan edo eskuinekoak, politikariek esaten dituzte gauzak nekazaritzaz baina gero esanak legetara pasaraztea besterik da. Hemen, Frantzia, esaten da Rocard laborariekiko sinpatikoagoa zela beste gehienak baino, baina haren garaian ez da besteekin baino askoz lege gehiago berritu. Mitterrandekin dezepzio handi bat nozitu zuten nekazariak.

Masanobu Fukuoka da laborantza biologikoaren fundatzaileetan laugarrena. Orijinalena alde askotatik.

Fukuoka (*Japonia, 1913-2008*) azken urteotan egin da ezagunagoa. Hautatu dut munduan lortu duen oihartzunagatik eta ekialdetarra delako. Ekialdeko kulturako partaide da, hori aldarrikatzen du eta horrek mugatzen du, ez baitu eduki Ekialdeko nekazaritzaz gogoeta egiteko askatasun handiagoa hango kulturaz aritzeko eduki duena baino. Fukuokak badu pasarte bat idatzia, niretzako arras argigarria egin duen ibilbideaz: dio hautua egiten hasita ikuspegi eboluzionistaren eta budistaren artean, berak budista aukeratzen duela.

Fukuokaren *Lasto izpi baten iraultza* irakurri nuenean, beste askorentzako bezala niretzako ere errebelazio bat izan zen maila intelektualean. Ikuspegi ezberdina dauka eta aldi berean oso sendoa, baina gainea xumetasunez idatzita dago. Noski, pentsakera oriental horretara ohitu behar duzu, aklimatatu, forma eta hutsunea, eta beste. Ez gaude horretara ohituta, gure kategoriak izakia, substantzia eta horrelakoe-



WWW.JASPERMIDDELBERG.COM

Masanobu Fukuoka japoniarra da nekazaritza biologikoaren fundatzaile garaikideena eta orijinalena. men hori.

tan mugitzen dira. Beste ikuspegi bat, beste kultura bat. Fukuoka funtsezkoa doa eta aldi berean gauza iraultzaileak proposatzen ditu.

Fukuoka mikrobiologian diplomatua zegoen, landareen patologietan. Laboratorioetan lan egin zen, Eiichi Kurosawa profesorearekin lan egin zuen, 1926an hazkuntzaren hormona bejela deskubritu zuenarekin. Aduanetako laborategietan aritu zen Bigarren Mundu Gerran. Eta halako batean nazkatu egin zen, krisi existenzial bat eduki zuen. Nekazaritzaz hasi zen galdezka. Gurasoek etxaldea zeukaten. Mendebaldeko zientziari kritika egiteko budismoan aurkitu zuen bidea. Galdezka eta bilaka hasi zen, esperimentatzen. Fukuokaren esperimentatze bidea zen gehiegizkoa kentzen ahalegintzea, hau eliminatu eta gero bestea. Nik “discretion technologique” deitu diot horri, gauzak naturak egiten dituen bezala egiten saiatzea. “Eta arbolok inausiko ez banitu?”, “Eta lurra goldatuko ez banu?”, “Eta soroak ureztatzeari uko eginez gero?”...

Horretan taoismoaz ere ari da, ez egiteaz, ez eragiteaz, “Wu-Wei” famatua...

Horra, Fukuokak bereari “ez-eraginezko laborantza” ere deitzen dio. Prefosta, ez egitea

“Fukuokak paso egiten die simaurrari eta konpostari; aitzitik, proposatzen du soroa egitea humusa dagoen lekuan edo zuhaitzak aldatzea tartean, hauek lurra ontzen dutelako (...) Eduki duen beste ideia desertuak berdetzekoa da, bai eskuz edo makinaz buztinezko bolatxoak eginda erein nahi diren haziekin”

baino askoz gehiago da, ez da alferkeria, hori baino askoz finagoa da. Natura basa anitz behatuko du, eta saiaturiko da aplikatzen ez-eragiteko printzipioak familiako lurretan. Aitak landatu mandarinondoak inausi gabe utziko ditu eta sekulako porrota jasan. Mandarinondo berri gazteekin hasi behar izan zuen, berak “nekazaritza basa” ere deitzen zion hura esperimentatzeko.

Gaixotasunekin berdin, Fukuokak esperimentatu nahi du nola moldatzen diren landareak inguru basati batean, gaixotasunak ea nola erakartzen dituen haren kontrako parasito eta predatzaileak ere. Gaur nekazari askok egiten diete borroka biologikoa gaixotasunei, edo kalkulatzeko dute ea ez ote zaien gehiago komeni uztaren halako portzentaia galtzea dena kutsatzea baino.

Arroz soroak ureztatzea ere kritikatu zuen. Historia aztertuz ohartu zen antzina Japonian ez zela ureztatzen orain bezala, eta Fukuokak arroza eta hirusta nahasian ereiten zituenez, urtaro jakin batean ureztatzea egiten zuen hirustak ximeldu edo ahuldu arte. Ez jorratzeaz berdin. Edo laboreak lastoz estaltzeaz. Eta konpostik ez erabiltzeaz.

Haustura handia dirudi nekazaritza biologikoaren ikurretakoa den konposta auzitan jartzea...

Konpostatzea ere kritikatzeko du Fukuokak. Berak kritikatzeko ditu nekazaritza kimikoa eta tradiziozkoa, halako laborantza budiko bat bilatuz: antzinateko nekazaritza, kasik edenikoa [Edendarra, *Bibliak aipatzen duen paradisuari dagokiona*], simaurketarik beharko ez lukeena, bere burua fertilizatzeke gai litzatekeena. Autofertilitatea aldarrikatzen du, lurra hondatzen ez bada gai dela bere burua oparo atxikitzeke. Areago: naturari bakean uzten bazaio, biziak gain hartzen diola mineralari, desertutik inguru jori bat sortzen duela. Eta egia da hala ikusten ditugula abandonatutako zelai eta soroak pixkanaka lehenik sasiz eta gero basoz jantzen. Niretzako biziaren dinamika oso inportantea da, hortik jo beharko genuke nekazaritzan, elkarrekin lantzeko laborantza eta basogintza. Hori egin daiteke modu ekologiko eta produktibo batean, Michel Griffon bezalako egile batzuek “intentsifikazio ekologikoa” deitzen dutena lortzeko.

Fukuokak paso egiten die simaurrari eta konpostari, aitzitik, proposatzen du soroa egitea humus erreserba dagoen lekuan, edo zuhaitzak aldatzea tartean, hauek lurra ontzen dutelako. Agroforesteriak egin duen bidea eza-guna da. Eta eduki duen beste ideia desertuak berdearaztekoa da, haietan haziak ereinez. Bai eskuz edo makinaz buztinezko bolatxoak egin erein nahi diren zuhaitzen haziekin baina baita haiekin batera erne behar duten beste hainbat landarerenarekin ere, sastraka, belarki eta beste. Buztinezko pikor horiek eskuz bezala hekaizketatik ereitea proposatu zuen Fukuokak, munduan basamortuek egin duten aitzina-menduari aurre egiteko. [*Nando-Dengo* teknika famatua]

Agronomiaren inguruko ahalegin teoriko eta praktikoko horrez gain, Fukuokak alderdi sozialetik ere badu zer esana. Zure ikerlanean

kontatu duzu haserretu zela bere produktuak garestiegi saltzen zituzten komertzianteeekin.

Honetan ere printzipio xumeei jarraitzen zitzairen: nik besteek baino lan gutxiago egiten badut eta horretan besteek baino gutxiago gas-tatzen, nire baratzeko fruituak merkeago saldu beharko lirateke. Fukuoka prest zegoen gutxiago kobratzeko, onartzen zuen, profeta bat zen, diruak ez zioin axola. Egun batean ohartu zen hirian bere fruituak uste baino garestiago sal-tzen zituztela, eta haserretu egin zen. Erantzun zioten: “Bai, baina merke jartzen baditugu, jen-deak usteko du hain onak ez direla, ez ditugu salduko”. Fukuokak ez zuen eztabaidatu nahi izan, fruituak horrela saltzeari utzi zion.

Zer pentsatua ematen dizu. “Bio denentza-ko” esaten bada, segun eta nola egiten duzun lan agian posible litzateke horretara hurbiltzea. Baina ez da hori komertzioan oinarritu gizar-tearen iritzia, saltaileek prezio altuagoak nahi dituzte, marjenak handitzea. Adam Smithengan ere badago nekazariak kontsumo gizar-tearen-tzako interesgarriak ez direnaren ideia hori, kontsumitzeko libertatea daukatelako, gauzak beren gisan produzitzen dituztelako. Adam Smithen helburua merkatari gizarte bat osatzea zen, denek denei saldu eta erosi behar diote-nekoa, horrek egingo duelakoan etekina, lana-ren banaketa dela medio. Aldiz, autogestioaren ikuspegitik komertzioak bigarren mailan egon behar du, nekazarien munduan zegoen gisan.

Gero, Japonian laborarien artean ugaritzen ikusi zituen makinak kritika ere egin du Fukuokak. Dio errazegi kalkulatu dituztela traktoreen abantailak, denbora irabaztea eta abar, eta ez dituztela kontutan hartu bestelakoak, herriko bizi soziala, poemak edo haikuak egitera joate-ko zeukaten astia... Ahalik eta gutxien mekani-zatutako nekazaritza defendatu du.

Beste orijinalitate bat Fukuokarena: nekaza-ri izatea da gizaki moduan osatzera iristeko bide espirituala. Horrelakorik ez duzu aurkitu-


ko Steiner, Howard edo Müllerrengan, hauen-tzako bizimodu bat da, gizakia ez da laborari-tzara mugatzen, badira beste gauzak bilatzeko, nekazari izatea ez da destinu bat, aldiz Fukuokak halako zerbait defendatu du.

Aldiz, bere mistikotasun guztiarekin, Fukuoka ohartzen da zuk liburuan zorrotz aztertu duzun fenomeno ekonomiko batez: mende luzez nekazariak jasan behar izan omen dituzten “guraizeez”.

Beste fundatzaileek ere sentitu dute baina Fukuokak zehazki idatzi du horretaz. Nekazari asko ohartuko ziren, nahiz eta formulatzen jakin ez. Dena dela, ez ahaztu hil berria dela, gizon jantzia zen, telebistan azaldu da, agrono-moak heldu zaizkio, atzerrira bidaiak egin ditu... Espiritualitate batez bizi den arren aktua-litatea ezagutzen du. Indian izan da bere meto-doa segitzen duten laborariei aholkuak ema-ten. Ramon Magsaysay saria eman zioten, Asiako Nobel saritzat jotzen dena...

Esplika iezaguzu zer den “guraizeen” feno-meno hori, tesian aipatzen dituzun *les ciseaux* horiek.

Irudika ditzagun guraizeak irekita, heldule-kua gora: beko aldeko aho zorrotzak dira labo-rantzako mozkinen prezioak, baserrietatik ate-ratzen diren produktu elaboratugabeenak...



**Fukuoka (eskubitan)
permakulturaren aitzindari
izan den Bill Mollison
australiarrarekin.**



Papy-Louis-en "Lursagarrrak eta tipulak" argazkiak bildu du 1950eko hamarkadako Parisko azoka bateko giroa.

Preziook beheranzko joera dute historian zehar eta orain ere. Aldiz, guraizeen goiko aldeak, zure hatzen helduleku edo begiek industriako produktuen prezioak irudikatzen dituzte, beti eta garestiago. Guraizeen eragin hori dela eta, inguru industrialean murgiltzen den nekazaritza traktoreen prezioengatik, ongarri kimikoenengatik, petroleoa, eraikin berriak... zenbat eta menpekoago den kanpotik baserrira ekarritako produktu industrialekiko, orduan eta neke handiagoak ditu etekinak lortzeko. Guraizearen bi erdian artean itota bizi da laboraria.

Fukuokak ondo ezagutzen du fenomeno hori, baserritarra zorretan itota, eta zorrei aurre egiteko zor handiagoetan murgiltzen... urtxintxa danbolin-kaiolan lasterka bizi den modu bertuan irudikatu du nekazaria Fukuokak. Gurai-

zeen fenomeno ezaguna da gaur egun, baina oso gutxi dakite hori oso aspaldikoa dela.

Egia da harrigarri egiten dela zure liburuan irakurtzea nola zegoen hirietako azoka antolatuta baserritarrei prezioak jaitziaz eta kaletarren haserreak baretzeko. Nola iritsi zara informazio hori biltzera?

Guraizeen fenomeno ezagutarazi zidan Raymond Delatouche-k *La chrétienté médiévale. Un modèle de développement* liburuan. Erdi Aroko gizartea deskribatzen du berak, artisauak, merkataria, industria, kultura, politika... Erosi behar duzu liburu hori.

Raymon Delatouche [1906-2002] laboraria zen, agronomoa eta artxibozaina, paleografia menderatzen zuena. Ekonomia ikasi zuen.

“Guraizeen sistema delakoarekin suntsiarazi da nekazari jendea, prezio industrialei aurre ezin eginez. Jatorrian ez zen fenomeno ekonomikoa, politiko eta poliziala baizik: goseagatik liskarrik sortu ez dezaten hirietako kaletarrak elikatzeke, gaur gertatzen den bezalatsu, elikadura merkea izatea bilatzen duena”

Raymond Delatouchek nekazaritza bera eta komertzializazio katea ezagutzen zituen ondo. Yoplait jogurt markaren sortzaileetan egon zen. Lan handia egin zuen nekazaritzaren historiari. Hala, poliziaren XVII. mendeko agiri batean aurkitu zuen zergatik eta nola sortu zuten Pariseko azoka nagusia, “Les Halles de Paris” deituak, gaurko azoka zentrala diren eta

10 milioi biztanleren elikadura kontrolatzen duen Rungis delakoaren arbasoa. Antzinako haren ildo berean funtzionatzen dute gaurko azoka nagusiak. Chicagoko burtsak eta beste gehienek.


Gauza da X. edo XII. menderako Parisek 200.000 biztanle bazituela. Hiri handi bat, baina gainera oso zabala, ez zegoen 10 solairuko eraikinik. Garai hartan ez zen kamioirik, ez zen hozkailurik, eta janariak kontserbatzeko gatza zegoen. Gatzetan ez izatekotan, hirian jan beharreko animaliek bizirik eta oinez etorri behar zuten. Burgesen etxe aberatsek hiltegia zuten. Arazoa zen sarritan ez zela aski janari iristen hiritar guztiak elikatzeke. Nekazariak autokontsumoan bizi ziren, etxerako ekoizten zuten, eta beharrak ase ondorengo soberakina zeramaten saltzera, zergak pagatzeko, janzkiak erosteko eta beste. Hirian, aldiz, nahikoa janari ez bazen istiluak gertatzen ziren.

Hiria oso zabala izanik, oinez ekarritako aziendak eta gainerako mozkinak gehien bat hiriaren kanpoaldean saltzen ziren. Gutxiegi iristen ziren zentro aldera... baina agintearen gune nagusiak erdigunean zeuden. Istiluek



HISTOIRE-IMAGE

Pariseko azoka bat XIX. mendean, *Histoire-Image* aldizkariak plazaratutako margolanean.



Frantzian Lemaire-Bucher teknikaren inguruan mugimendua sortu zen 1960ko hamarkadan.

jauregiak eta agintea meatxatzen zituzten. Ondorioz, aginte zentralak moztu zuen nekazaritzako produktuak saltzeko libertatea, azoka edo merkatuentzako araudi oso zorrotzak ezarrita. Horra nola sortu zen “le marché à l’horloge” deitua.

Azaldu ezazu zer zen erlojupeko salmenta hori...

Hasteko azokak hiriko gune estrategikoetan kokatu zituzten. Baina gainera, laborariak derrigortu zituzten salmentak egitera egun jakinetan eta ordu jakinetan. Azoka orduetan inguruko komertzioek itxita egon behar zuten, haietan saltzaileek bildu eta prezioak elkarrekin hitzartu ez zitzaizten. Eta nekazariak azokan saldu gabekoa osteratzea oztopatze

“le quart d’heure du pauvre” asmatu zuten, soberakinak kasik oparitzera behartuz.

Neurri horiekin alde batetik hirietako biztanleen elikatzea bermatzen zuten, eta beste aldetik eskaintza azokan kontzentratuz salgaien ugaritasun derrigortu horrengatik prezioak jaitsiarazi egiten ziren. Hau da, Pariseko biztanleak elikatu eta gainera merke. Erromatarren *panem et cirences* haien izpirituan segitzen dugu hemen.

Sistema horretan nekazariak irabazteko ezer ez zeukan, merkeago saltzeko behartzen zuten. Baina iraultza industrialak arte horrek ez zion gehiegi eragiten, beharrezkoak ez zituen sobekarekin jokatzeko, jolastzat-edo hartu zezakeen, ezagutzen duzu azokako anbertza sinpatiko hori. Baina nekazariak dirua beharko duenean etxaldea mugiarazteko, orduan hasi da arrangura galantak izaten.

Sistema horrekin suntsiarazi da nekazari jendea, prezio industrialei aurre ezin eginez. Horra guraizeen fenomenoaren jatorria, ez ekonomikoa sorreran, politikoa edo poliziala, herritarrek elikatzekoa liskarrik sortu ez dezaten, gaur gertatzen den bezalatsu jendearen elikadura merkea izatea bilatzen duena. Gaur Frantziako familia baten aurrekontuaren %15-17 hartzen omen du elikadurak; aldiz, Bigarren Mundu Gerraren ondoren %45-47. Zer pentsatua ematen du. Nekazarien interesak ez ziren batere kontutan hartuak izan hasieratik afera honetan.

Nekazaritza ekologikoaren fundatzaileen historian beste ardatza fertilitatea da, emankortasuna.

Laborantza naturarekiko harmonian aritzea, nire iduriko, krisi ekologikoa konpontzen saiatzearen parekoa da. Teknikaz gogoeta egiteko alor eredugarria iruditzen zait. Rusch-en liburu bat *Lurzorua emankortasuna* da. Steinerren ideiak biodinamikan aitzinarazi zituen Ehrenfried Pfeiffer-en liburu nagusia *Lurraren eman-*

kortasuna. Howard eta Fukuokarengan ere berdin, fundatzaileentzako gai funtsezkoa zen. Bioan ari ziren aitzindarien ideia sinplea zen: lurzoru sanoa, lurzoru emankorra, elikadura sanoa, ondorioz jendea sano.

Landareak ondo elikatzetik haratago, fundatzaileek gogoeta egin dute lurraren emankotasunaz: nondik dator fertilitatea, nola mantendu... Baina honetan agronomiatik haratago goaz. Parentesi artean esateko, niretzako agromonia ez da naturaren zientzia bat. Zergatik? Hori da Fukuokaren intuizioa eta hori da BRFa-ren atzean dagoen zientziak erakutsi duena: soroak ez dira objektu naturalak, baso eraisketen emaitza baizik, lehendik zegoen natura basaren eraldaketaren emaitza. Soroaz gogoeta egitea natura direlakoan... hanka sartzetik hurbil ibiliko gara. Oihanean datza gakoa.

Planetaren eta lurzoruaren emankortasunera itzulita, agrobiologiaren fundatzaileak saiaturiko dira natura imitatzen, izan konpostaketa, pilan bezala zabalean, eta abar. Nekazaritza kimikoa-ren alderantziz, ez dituzte lurzoruko gai kimikoak lehenetsiko lurzoruko bizia baizik. Lurzorua elikatu landarea elikatzeke. Lehenetsiko da ekosistema, landarea izaki biziduna baita, lurzoruko izaki askorekin batera bizi dena, eta guztien ikuspegi globala atxiki nahi dute. Ondorengo urratsean datoz kabalak, animaliak ez dira sartzen fundatzaileen lehentasunetan, ez bada konposterako duten interesagatik.

Fundatzaileak gauza batek mugatzen ditu emankortasunaren bilaketan, nire ustez: humusaz eta basoaz daukaten ikuspegia hein batean xarmazkoa dela gehiago [frantsesez “*enchanta-toir*” dio Bessonek; “*enchanté*” xarmatua edo sorgindua edo liluratua esan genezake] zientifiko baina. Howardek aipatu du oihana bere konpostaketaren eredutzat: niretzako nekez lotu daitezke konposta eta laborantza-abelazkuntza, polikultura eta basoa... Oihanean humusa ez da sortzen erbien edo basurdeen gorotzetatik, hori da gutxienekoa, emankorta-

“Emankortasunaren bilaketan, fundatzaileak mugatu ditu humusaz eta basoaz zeukaten ikuspegiak, hein batean xarmazkoa zelako (magikoa) zientifikoa baino (...) Soroak ez dira objektu naturalak, baso eraisketen emaitza baizik. Oihanean datza gakoa”

suna orbeletatik, eroritako adarretatik eta lurzoruak dauzkan izakietatik sortzen da. Horregatik idatzi dut hor “jauzi kognitibo” bat dagoela.

Humusa? Zientzialariek emango digute erantzuna, humusa baino pedogenesisa dela interesatzen zaiguna, lurzoruak nola sortzen diren, eta hortik azken denborotan sortu da BRF teknika. Substantziaz baino gehiago prozesuaz. Gaur badakigu lurzoruak sortu egiten dela, eta horretan basoa dela funtsezkoa, egurraren ligninagatik, basoetatik sortu lurrak mila urteko emankortasuna eduki lezakeela, eta aldiz belarkaren lastotik sortuak gehienez ehun.

Uste dut zuri irakurri dizudala Howarden ideia hau: European gure lurzoruak agortu ditugula eta gaur gure soroek daukaten emankortasuna munduko besteei ostua dela, koloniei ebatsia.



Emakumeak baratzen Alemaniako Eden kolonia ekologikoan, XX. mende hasieran.

Eta zuzen ari da. Europako alorrak nekatuta daude, ez genituen ondoegi artatuko eta gainera abere asko mantendu behar dute. Hori Howarden garaian ezaguna zen Ingalaterran. Nola elikatzen ditugu aziendak? Urrundik ekarritako soiaz bazkatuz. Ongarria behar dugunean, hura ere kanpotik, lehen “guanoa” ekarri genuen tonaka eta tonaka, gero gerokoak. Konponbiderik bertan ez dugu aurkitu.

Howard baten beste ideia bat, industrialismoarekin nekazaria lapur edo gaizkile bihurtu dela.

Hori gaur zertan mamitzen den jakiteko, *Mundua Monsantoaren arabera* filma ikusi behar da. Denek ikusi beharko lukete. Hor dira Indiako baserritarrek, lehenik Iraultza Berdearekin eta gero Monsantoaren iraultzarekin, sartzen dira OGM eta pestizidekin, ezin dira aurrera atera, zorretan sartzen dira, bitartean bertako haziak galarazten dituzte, zor handia-goetan itotzen dira, lehertzeraino, askok beren buruak hiltzen dituzte...

Howard Iraultza Berdea baino lehenagoko egoeraz ari zen. Ordurako nekazariak arazoak zituzten N-P-K ongarriak erosteko. Betiko simaurketak utziarazi eta abono kimikoetan sartuta, hasierako etekinen ondoren azaltzen

“Nik deitzen diot *culture de vie*, alegia, naturarekin elkarlanean aritzea biomasa eta bioaniztasuna handitzeko (...) Zenbat eta handiagoa ekosistemaren konplexutasuna, orduan eta handiagoa perturbazioei –eguraldiaren gorabeheri, gaixotasunei eta abar– aurre egiteko ahalmena”

zitzazkien gaitzak landareetan, uztak gutxitzen hasten, eta abar. Kontua da N-P-K mentalitateak lurra ez baina landarea elikatzea dakarrela, pixkanaka zurrupatzen zaio aberastasuna lurrari eta landare-uztatan esportatzen dela. Ez da gehiago “agri-kultura”, lur-langintza, lurra- ren hustiaren hutsa baino. Horregatik dio Howardek sistemak laboraria lapur bihurtu duela jakiak sortzeako baino dirua irabazteko erabakia hartu duenean.



Fundatzaileek aspaldi iragarri zuten kimikan oinarritutako nekazaritzak ez zuela gizakiaren elikadura bermatuko.

Estatu Batuetan sistema honek erakutsitako pobretzea ere aipatu zuen Howardek, lurzoruaren higatzeagatik sortutako Dust Bowl edo Hauts Ekaitz haien arrazoiez [1930eko hamarkadan sekulako hauts erasoak jasan zituzten AEBetan, antzinako zelai zabaletan nekazaritza intentsiboak eragindako higaduraren ondorioz]. Ordurako ikusten ziren nekazaritza sistema horren ondorioak, Howard bezalako gizon batek ondo argitu zituen zergaitiak, urte gutxitan lurraren emankortasuna suntsitu zutela... Guzti hori aspaldikoa da, baina harrigarria da berdin segitzen dugula mundu osoan, bestelako laborantza egiten duten minoriek salbu. Zergatik da, zure ustez?

Baina zergatik aldatu behar zen? Sistema industrial kapitalistak agintzen du, industrialismoak. Industria ez da berez txarra, baina bada-go eskala eta kontrol behar bat, nagusien eta langileen artean, kapitalaren eta langileen arteko harremanena, teknikaren eta enpleguaren artekoa, kutsadurarena, merkatuarena, garraioarena... Konplexua da, egia. Baina aldaketarako arrazoirik ez da ikusten kapitalismo ultraliberal bere nagusitasuna sakontzen ari denean mundu osoaren gainean. Helburu bakarrak hustiatzea eta etekina ditu, bestelako irizpiderik ez du.

Les oubliés du XXI^e siècle ou la fin du travail” deitu filmean, uste dut Arte katean eman zutela, esplikatzeko dira kapitalismoaren aro ezberdinak eta azken 20 urteotan gertatu diren aldaketak. Ez dago hori geldiaraziko duen indar ideologikorik ez sozialik, zuzenean hormaren kontra goaz. Sinestun naizen momentutik, Jainkoak bakarrik salba gaitzake hodamenditik. Gauzak ulertzeko ez dago sinestun izan beharrik, baina aurre egiteko nondik atera indarrak? Historiaz pesimista naiz, baina naturaz eta Jainkoaz optimista, horra.

Luze mintzatuak gara dagoeneko.. Goazen, nahi baduzu, ondorioetara: zehaztu konklusioak.

Begira, nire tesia egina dago, liburua laster izango da kalean [lehendik egileak Internetez irakurgai ipini du tesia osorik], eta niri interesatzen zaidana aurrera begirako ikerketa plana da. Nekazaritza biologikoaren gai nagusia da natura kultibatzea hura errespetatzeko maneran. Ez bakarrik elikadura on eta sanoak ekoizteko, baita ere nekazari mundu biziago bat eraikitzeke, bizitzeko atsegina, biztanle gehiagorekin, festa eta barre gehiago egingo duena. Tesian aipatu nuen hori eta norbaitek esan zidan ez zela serioa, baina niri hala iruditzen zait, lanaz gain badira gauzak bizitzan. Horretan nekazaritza ekologikoak itxaropena dakar.

“*Culture de vie*” deitzen diot nik, alegia, naturarekin elkarlanean aritu biomasa eta bioaniztasuna handitzeko. Ezagutzen dugu bioaniztasuna eta biomasa lotuta daudela, zenbat eta handiagoa ekosistemaren konplexutasuna



ARGIA

Yves Bessonek bere eskuz eraikitzen ari den garajearen egitura erakutsi digu.

orduan eta handiagoa perturbazioei –eguraldieren gorabeherei, gaixotasunei, eta abar– aurre egiteko ahalmena, eta handiagoa ere biomasa, bizi kantitatea, edukitzekoa. Nekazaritzak, beraz, ez ditu soroak bakarrik landu behar, baidetik eta inguruko eremuak ere bai.

Fukuokak ireki zizkion ateak ideia horri. Soroaren ondoan basoa eduki, zura baliatzeko, etxerako egurra egiteko, baina baita BRF bidez lurra ongarrizteko ere, adaxka birrinduek lurzoru eguzkitik eta euri zaparradetatik babesteaz gain lurreko bizia sustatzen dutelako. Natura kultibatzea, naturarekin elkarlanean aritzea fruitu eta material biodegradagarri gehiago eman ditzan.

Nekazaritza biologikoa niretzako da modubatu bat ausnartzeko garapen teknologiko ekologikoa nola gauzatu. Elikaduraz ari bagara, seguruenerik sustatu behar ditugu ehiza, arrantza edo landare basak biltzea, jateko eta sendatzeko usatu ditzakegunak, mendeetako ezagutza ez dugu galdu behar. Lehengai biodegradagarrietan ere bide luzea daukagu egiteko, plastikoa ordezkatzeko adibidez, biokimikan, ingenieritza ekologikoan. Kutsatutako lurzoruak bere onera ekartzeko mikroorganismoak landu.

Baina gai are funtsezkoagoa niretzako, eta oraingoz garatzeko bazkiderik aurkitu ez dudana, zera da: ekosistemen ezagutza sakon batetik abiatuta saiatzea zehazten zein gai diren zein une eta gune geografiko zehatzetan naturak ondoen asimilatze modukoak. Eta horrela, edozer erein edo landatu baino lehen jakin ahal izatea naturak ondo bereganatuko dituela eta are natura bera aberastuko dutela.

Aldiz, gaur egun azti-berrien (*“aprentis de sorcière”* dio frantsesez) logikan bizi gara. Sintetizko materialak sortzen ari gara eten gabe eta horiek gero zuzenean naturan bertan testatzen ditugu. Pestizidekin gertatzen dena sintomatikoa da: merkaturatzen diren pestizida gehienak hamar-hamabost urteren buruan debekatu egi-

ten dira, eragindako kalteak nabarmenak direnean. Hortik atera beharra daukagu, ikerketa independentea behar dugu, filosofia eta zientzietan adituen elkarlana. Hor sartzen ditut nin erlijiozko gaiak ere.

Ildo horretatik, abian dudan ikerketa proiektuak izenburu hau darama: “Réponses compatibles avec l’Evangile des questions écologiques et agricoles”. Filosofia, teologia kristaua eta zientzia artikulatzen saiatzen naiz. Horrek bi azpiproiektu daramatza berekin.

Lehen azpiproiektuak lantzen du biodegradazioa, kutsadura, Lovainako Spyros Agathos irakaslearekin batera. Agathos mundu mailako erreferentia da gai oso kutsagarrien tratamenduan. Bera ere bio-erremedioketan ari da pentsatzen. Hortik garatu beharko lirakeke zoru kutsatuak sendatzeko mikroorganismoak. Berak gaia jorratzeko modu orijinala dauka. Orain artean egiten zen izaki bizidun batzuk laboratoriorioan sartu, han lanean jarri eta gero berriro naturara jaurtitzea. Baina arazoa da naturan eta laboratoriorioan izakiak ez direla berdin bizi eta hiltzen, errealitatetik urrun gabiltzala. Agathosek egiten duena zehatzago aztertu nahi dut.

Bigarren egitasmoak landu nahi du aplikatzea nekazaritzari arrezife artifizialen eredu, hau da, itsasoak gune jakin batean dauzkan korrante, haize, sakonera eta beste kontutan harturik, bioaniztasuna sustatzea arrainentzako kokaguneak eraikiz. Zer egin dugu? Natura ulertu eta berari lagundu, emankortasuna handituz. Hori bera egin behar dugu soro eta oihanetan.

LARRUN pentsamendu aldizkaria

ARGIArekin batera banatzen da

Zuzendaria: Xabier Letona

Jabea: Komunikazio Biziagoa S.A.L.

Helbidea: Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160

Lasarte-Oria **Posta Elektronikoa:**

larrun@argia.com **Telefonoa:** 943 37 15 45

Inprimategia: Antza S.A.L. **Informatika:** ASP SCOOP.

(ARGIAko 2.258. zenbakiarekin banatua, 2010eko abenduaren 26an)